

ek!

eta kitto!
euskararen elkarteak

2024ko otsailak 9 · 1300 zenbakia



JAIRAKO GOGOA SOINEAN

10 Egun Kia.

Otsailaren 8tik 19ra

Naia Car

Apalategi auzoa, 1
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 70 70 33
www.gruponaiacar.com

Kontsultatu promozioaren baldintzak eta ezaugarriak www.kia.com webgunean. Penintsulako, Balearretako, Ceutako eta Melillako kontzesionarioaren sarean du balioa eskaintza honek.





osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clínica dental
Fernán Calbetón 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
@ppdental

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1 esk. 843-702886

arat.
ARAT KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Torres Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratclinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKIA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
MILKIDU

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 668 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

501 Kalea 2da. A

- INHIBITERRAPIA
- KIBRO, LINGUAK
- Puntzio eta TALENTUAK
- K. terapeuta - DEPORTEKORAK
ARRAGUETA, 20
Tlf: 943 53 04 42
ane_mendi@telefonos.com

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 668 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



Esku onetan egotearen
ziortasuna,
20 urteko garaia zurekin gurekin,
Bistak eta agerikoa gurekin.



bista eder

clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista-eder, 19
www.bistaeder.es



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak

ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

**Dra. Laura
Martinez**



**Dr. Alejandro
Recas**

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko Klub Deportiboaren marka-irudi berriaren sorkuntzaz eta Andretxean aurkeztu zuten Pikara aldizkariaren urtekariaren maketazioaz arduratu da Irune Jaio, besteak beste. Lan hauetaz eta bere lanbideaz jardun dugu berarekin.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Fernando Retolaza

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Begiradan dago sekretua

Azken alean kaleratutako Eibarrek duen biztanlegoaren kopuruaren inguruko artikuluaen harira, izan da kaleratutako argazki baten desegokitasuna azpimarratu nahi izan duenik. Izan daiteke irudi hori aproposena ez izatea, hori seguru, baina hartu nahi izan zaion esanahia guztiz jokoz kanpo dago; astekari honek betidanik jarraitu izan duen ibilbideari erreparatzea besterik ez dago.

Irudia Marokon izandako lurrikararen ondoren bertara hemendik bideratutako laguntza egunetako da. Argazki-oinean hori adieraztea lagungarri izan zitekeen, txarto ulertzeak saihesteko. Jendeari laguntzeko elkartasunerako maila erakusten duen irudizat hartu dezakegu... Bestela ere, irudiak ez du ezer txarrak erakusten. Akaso, gure begiradan egon daiteke gakoa, gu ere askotan jausten garelako besteei aurpegiratzen diegun aurrejuzkuetan.

Hala ere, norbait mindu badugu, barkamena eskatzearekin batera, orain arte bezala gaiak errespetuz tratatzeko asmoa berresten dugu. Inoiz ez dugu pegarik izan gure akatsak, izatekotan, zuzentzeko. Eskerrik asko.

Erredakzioa

Hortik esanak



Ez dakit inoiz ohartu zareten, baina lotsa-emangarriak dira bikote instituzioak gure gizartean daukan balio, prestigio, pribilegio mordoa, eta nagusitasuna. Nola liteke, adibidez, ama zaindu beharzagatik edo amaren heriotzagatik hiru edo lau eguneko baimena izatea lanera joan behar ez izateko, eta ezkontzeagatik bi asteko oporraldia izatea? Eremu administratiboko askoz adibide gehiago eman litezke, baina hori bereziki adierazgarria dela uste dut, ongi ilustraten du azpian daukan esanahi eta ideologia. Niretzat eskandalu bat da.

ANE ABLANEDO, irakaslea

Puntu batera heldu gara non justizia sare sozialen esku laga dugun. Pertsona baten ugazabari deitzera iritsi gara sarean zeozer idatzi duela-eta bere langilea bota dezan eskatzeraino. Eta batzuek jasan behar duten jarraipena ezin da onartu: batek 14 urterekin esan zuena bere aurka jotzeko erabiltzen da 25 urte dituenan. Non geratzen da gaizkilearen errehabilitazioa, bere gizartearatzea? Kartzelan daudenentzat onartzen duguna baztertu egingo dugu bakarrik bere eritzia eman dutenekin?

PABLO MALO, psikiatra

Esatea tabua da, baina inteligentzia galtzen ari gara. Haragi errealetatik urruntzen garen heinean handitzen da gure arteko troka, eta puzten, gure elkarrekiko herra. Gero eta gutxiago ulertzen dugu gurearekin talka egiten duen bestearen iritzia, berrespina baino ez dugu onartzen, eta kuestionatzen duen edonor areriotzat jotzen dugu. Ez dakigu ezberdinarekin bizitzen, eta hor galtzen ari gara inteligentzia.

TIMOTHY SNYDER, Yale Unibertsitateko irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OSTONDO → Ortzemuga, hodeiertza. "Urriñian ostonduan etxe bat agiri zan".

OSTRO → Landareen orriak itsatsita daudenean. Lurrean daudenak orbelak dira.

"Udabarrixan ostro barririk agertzen diranian..."

1970

Lagun taldea Aratosteak ospatzen

Eibarren koko-janzteko tradizio handia egon da betidanik, eta koadrila batzuk ezagunak izan dira Aratosteetarako antolatzen zituzten kalejira eta jaiengatik. Plazaolaren argazkian Stau Lanbau elkartekoak ageri dira.



Farmaziak

- BARIXAKUA 9**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
- ZAPATUA 10**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- DOMEKA 11**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ASTELEHENA 12**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustin, 5)
- MARTITZENA 13**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 14**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- EGUENA 15**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- BARIXAKUA 16**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Eduardo Jose Menendez Belon**. 76 urte. 2024-02-02.
- **Marga Martin Rodriguez**. 60 urte. 2024-02-03.
- **Nicolasa Llorente Herranz**. 85 urte. 2024-02-06.
- **Trinidad Intxauspe Genova**. 91 urte. 2024-02-06.
- **Rosario Cavia Gonzalez**. 93 urte. 2024-02-07.

Jaiotakoak

- **Iuri Richard Agirreoa**. 2024-01-31.



Erabiltzaile adituentzako hitzaldiekin batera, publiko orokorrentzat pentsatutako bestelako jarduera ludikoagoak egingo dituzte gaur eta bihar izango den Uni Encounterren.

Uni Eibar-Ermua teknologia berrien topagune bilakatuko da

Gaur arratsaldean hasiko den “Uni Encounter” ekimena aurkeztu dute aste honetan, udaletxean. Uni Eibar-Ermua ikastetxeak antolatzen du informatika eta teknologia berrien inguruko topaketa eta, horri buruzko azalpenak emateko, han egon ziren Alesander Robleño, Oskar Gisasola eta Gorka Guenaga, Jon Iraola alkatearekin eta Vanesa Hortas Ekonomia-Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Saileko zinegotziarekin batera.

Esandakoari jarraituta, bi egunetan (barixakuan eta zapatuan), hitzaldi eta dibulgazio-jardueraz gain, ordenagailuko, bideo-kontsolako eta mugikorrekoko jokoak, lehiaketak eta txapelketak egingo dira Uni Eibar-Ermua ikastetxean. Antolatzaileek berbetan, “orain dela 20 urte hasi ginen Uni Encounter antolatzen eta, urte hauetan gaiteria erabat aldatu bada ere, asmoa berbera da: teknologia berriak herritarrei gerturatzea”.

Asmo horrekin, era guztietako jarduerak biltzen dituen egitaraua osatu dute. Uni Encounterra gaur inauguratuko dute, 18:00etan, eta jarraian Eleskyren kontzertua hasiko da; 20:00etan, “Astronomiarako sarrera: Software, Teknologia eta beste batzuk” hitzaldia emango du Gorka Buruagak; 21:00etan, gaueko jarduerak (mahai-jokoak, mini-jolasen lehiaketak...) hasiko dira; eta, 22:00etatik aurrera, “Astro-

nomia praktikan” (2. Atala) eskainiko du Gorka Buruagak. Hitzaldi teknikoenak, berriz, bihar izango dira, 11:00etan hasita.

Antolatzaileek nabarmendu dutez, aurtengo berritasun nagusia Flybble-ko kideen eskutik ailegatu da, *Drone Soccer* edo *Battle Bots* bezalakoekin: “Ekitaldiak hitzaldien bloke oso interesgarri bat izango du, erabiltzaile teknikoagoentzat, eta, aldi berean, jarduera irekiak eta publiko guztientzako egokiak, bai entretenimenduaren esparruan, bai aktibitate didaktikoetan; jarduera horiek balio dezakete teknologia desberdin bezain interesgarrietan (adimen artifiziala, zibersegurtasuna eta borroka-robotak) interesa duten guztientzat lehen kontaktua izateko. Hitzaldi hauek topagune bat eskaintzen dute esperientziak partekatzeko eta esparru teknologikoari, jolasaren eta entretenimenduaren arloari eta negozio digitalei buruz ikasteko. Aurten Encounterrak nazioarteko izaera izango du, Holandako sei ikasle eta Danimarkako bi etorri direlako parte hartzera, eta ekimena nola antolatzen den ikustera, gero beren herrietan antzekoak egin ahal izateko”.

Ekimenaren alderdi ludikoan, ordenagailurako, bideo-kontsolarako eta mugikorretarako jokoak izango dira protagonista zapatuan, eta askotariko lehiaketak antolatuko dira: *Counter Strike*, *League of Legends*, *Valorant*, *Clash Royale*... jokoak, FIFA 23ko kotsola-lehiaketak, mahai-jokoen partidak, eta e-sport jolasak. Gainera, iazko arrakasta ikusita, KPPO coover lehiaketa egingo da aurten ere. Bestalde, ekimenaren une garrantzitsuenak zuzenean emango dira, Twitch bidez (twitch.tv/uniencounter), eta egitarau osoa <https://uniencounter.uni.eus> webgunean kontsultatu daiteke.



Santa Ageda batzen

Juan Bautista Gisasola Eibarko Musika Eskolak antolatuta, domekan, Santa Ageda bezperan, bi kalejira egin ziren gure herrian, ohiturari jarraituta koplak kantatzeko. Goizean gaztetxoenen txanda izan zen eta, iaz bezala, Arratetik irten eta Urkizuraino jaitsi ziren, baserrietatik santa-eskean ibili eta gero. Eta arratsaldean Untzagatik irten zen bigarren taldea, erdialdean kantatzeko.

ARGAZKIAK: EIBARKO MUSIKA ESKOLA



Txirrindulari Elkarteak Txistorra Eguneko sari nagusia banatu du

Aurreko astean, eguenean eman zuten Eibarko Txirrindulari Elkarteak Txistorra Egunean egindako zozketako sari nagusia. Irabazlea Juan Carlos Martin izan da eta 200 euroko saria Angel Lopez Txirrindulari Elkarteko presidentearen eta Oberena harategiko Juanma Jimenezen eskutik jaso zuen. Zorionak!





Elikagaien Bankuak esker ona agertu die Munduari Kolorea Ematen GKEko gazteei

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzan omendu zituzten eguaztenean “Munduari Kolorea Ematen” GKEko kide eta fundatzaileak. Maitane, Amaia, Malen eta Anek, 11 urte besterik ez zituztela, GKE hau sortu zuten 2022an, behartsuenei laguntzeko. Dagoeneko 18 laguntzaile aktibo daude taldean, eta horrek indarra emango die etorkizunean egingo

diren ekintzei. Belen Mendez de Vigo Gipuzkoako Elikagaien Bankuko lehendakariak, Bergarako egoitzako zuzendari Jose Maria Beitiarekin batera, diplomak eta opariak eman zizkien ekitaldian Maitane, Amaia, Malen eta Aneri. Modu horretan, gizarte guztiaren esker ona adierazi nahi izan zieten, “behartsuenekiko duten sentikortasun goiztiarragatik”.

Poliziak hainbat lagun aterarazi ditu Urkizuko lokal batetik

Polizia Nazionalaren atzeritarren brigadak eta Eibarko Udaltzaingoak atzo goizean egindako operazioan, lau lagun aterarazi dituzte Urkizu kaleko lokal partikular batetik, Udalak jakinarazi digunez. Horietako bat atxilotuta eraman zuten, “poliziaren aurka nahiko jarrerara oldarkorra” erakutsi zuelako ateraraztea gertatu zenean.

Udaletik esandakoari jarraituz, “problematikoak” ziren lokal horretan zeuden lagunak, eta lapurretak

egin dituzte herriko hainbat establezimendutan. Udaleko ordezkarien berbetan, “horregatik, identifikatuta genituen, eta polizia atzetik zebilen”. Bertan bizitzen egon den jende gehiena “oso gaztea” zela esan digute, eta horietako batek Herbehereetatik kanporatzeko agindua duela. Okupatuta egon den lokala Urkizun dago kokatuta, dorreen azpiko aparkalekuaren inguruan, eta operazioaren ondoren lokala hustu eta sarraila aldatu zuten.

Autobus gehiago jarri dituzte astebarruan Donostitik etortzeko

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak autobus gehiago jarri ditu DBO2 linean (Ermua-Eibar-Elgoibar-Zarautz-Donostia). Zehazki, 18:20an eta 19:20an Donostiatik Eibarrera ematen den ohiko zerbitzua autobus gehigarri batekin indartuko da, erabiltzaileak autobusetik kanpora gera ez dadin. Departamentuak DBO2 linearen erabilera-datuak eta erabiltzaileen beharrak aztertu ditu eta, oraingoz, errefortzua astelehenetik barixakura mugatuko da. Hala ere, Udaletik adierazi dutenez, “asteburuetan dagoen eskaria aztertuko da eta, linea indartu behar dela ikusiz gero, indartu egingo da”.



San Andres elizara 360º-tako bisita birtuala

San Andres eliza itxita egon arren, herritarrek haren barrualdea sekula baino hobeto ikusteko aukera daukate atzoz geroztik, 360º-tako bisita birtuala egin daiteke-eta. Udalak aukera hori herritarrentzat eskuragarri ipini du, Interneten. Bisita egiteko helbidea hau da: <https://360.egoibarra.eus/sanandres/eu/>



Fabrikazio mekanikoaren arloan enplegua sustatzeko programa

Eibarko Udalak fabrikazio mekanikoaren arloan enplegua bultzatzeko programaren beste edizio bat jarri du abian, Armeria Eskolarekin batera. Horren helburua langabezia dauen Eibarko 15 pertsonaren laneratzeko gaitasuna hobetzea da, eta neurriak egindako ibilbideak eskainiko dizkiete horretarako. Aurreko edizioetako emaitza onak ikusita, Udalak programa errepikatzea erabaki du. Izan ere, iazko edizioan parte hartu zuten 15 pertsonetatik erdiek baino gehiagok lortu zuten lan-merkatuan sartzea kontratu baten bidez, eta %30ek beren formakuntza-prozesuan jarraitu zuten. Guztira 8 hilabeteko programa izango da eta txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa, orga jasotzaileak gidatzeko prestakuntza eta gaitasun pertsonalei buruzko formakuntza eskainiko dira. Gainera, gutxienez 60 orduko praktikak egingo dira enpresetan eta parte-hartzaileek lan-munduan txertatzeko laguntza jasoko dute. Izena emateko epea zabalik egongo da otsailaren 5etik 24ra, egun biak barne. Interesdunak Pegoran eman ahalko dute izena aurrez aurre, edo www.eibar.eus webgunean modu elektronikoan.



ABIAN Debabarreneko Lanbide Heziketako Azoka egingo da otsailaren 28tik martxoaren 1era, Ipuuruako aparkalekuan

Bi urtean behin egiten den ABIAN Lanbide Heziketako Azoka otsailaren 28an, 29an eta martxoaren 1ean egongo da martxan, Ipuuruako aparkalekuan. Izan ere, horretarako lankidetzak-hitzarmena sinatu dute beste behin SD Eibar Fundazioak eta Debegesak. Azoka Debabarreneko zortzi udalek antolatzen dute, Debegesa eskualdeko Garapen Agentziarekin elkarlanean. Aurten, ohiko prestakuntza-zentroen standei Debabarreneko unibertsitateko prestakuntza-eskaintza gehituko zaie, zehazki, EHUK Eibarren (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Eibar-ko atala) eta Elgoibarren (IMH Campuseko Ingeniaritza Dualeko Eskola) dituen ingeniaritza-graduak. Espero da Debabarreneko DBHko eta Batxilergoko 700 ikasle baino gehiago bertaratzea bisita gidatuak egitera. Nolanahi ere, azoka interesatuta dagoen orori dago irekita. Eguazten eta eguean 10:00etatik 14:00etara eta

16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik. Barixakuan, berriz, goizeko ordutegia izango du: 10:00etatik 14:00etara.

Debabarreneko ikastetxeek hartuko dute parte

Azokaren seigarren edizioa izango da aurtengoa, eta honako ikastetxeek hartuko dute parte: Armeria Eskola, IMH, Meka Lanbide Eskola, Uni Eibar-Ermua, Kardala Akuakultura Eskola, Mutrikuko Institutua, Eibarko Oinarrizko LH eta Ermua-Mallabiko Oinarrizko LH eta Debabarreneko UPV/EHU ingeniaritza graduak (GIE-Eibar eta IMH Campus). ABIAN azokaren helburua lanbide-heziketa sustatzea eta Debabarreneko kalitateko prestakuntza-eskaintza zabala ezagutaraztea da. Era berean, eskualdeko enpresek beren beharretara egokitutako ezagutza eta gaitasun tekniko-teknologikoak dituzten pertsonak topatzen laguntzeko asmoa ere badu.

Hondakinak gaika sailkatuko balira, urtean 2 milioi euro aurreztuko lirateke Debabarrenean

Horrela neurtu dute Debabarrena Mankomunitatekoek egoki birziklatzeak gudan izan dezakeen eragin ekonomikoa. Aurreko barixakuan prentsaurrekoa eskaini zuten 2023ko gaiako bilketaren datuak jakinarazteko eta, horrekin batera, datu horien txosten grafikoa eskuragarri jarri dute herritarrentzat *debabarrena.eus* webgunean, zuen etxeetan egun hauetan jaso egingo duzuen inprimakiarekin batera. Ahalegin horiek guztiak birziklapen-ohitura egokien kontzientzia areagotzeko asmoz daude eginak eta, zelan ez, baita bildutako informazioa zabaltzeko ere.

Debabarrena eskualdeak %53,89ko urteko gaikako bilketa-tasa lortu du 2023an, 2022an baino %0,79 gutxiago: aurreko urtean baino 164 tona gutxiago bildu dira gaika, 16.570 tona guztira. Azken bi urteetan gaikako bilketaren tasaren joera beherantz joan da pixkanaka, pandemian %55era iritsi eta gero. Debabarreneko gaikako bilketa tasa %53,89an badago 2023an, eta 2022an %54,68koa izan bazen, ez dugu ahaztu behar 2020an %55,26koa izan zela, orain arteko altuena; hori bai, jakinda orain dela hamar urte, 2013an,

%29,62an bakarrik zegoela kokatuta, hau da, oraingoaren erdia ia.

2023an 30.747 tona hondakin bildu ziren guztira: hondakin horietatik, 16.571 tona (guztien %53,89) dira gaika bildutakoak; gainerakoa, errefusa, 14.176 tona (%46,11) izan dira. Gaika bildutakoan artean, materia organikoaren eta birziklatu ezin diren hondakinen (errefusa) kopuruetan gora egin da, zertxobait igo da baita ontzi arinen kopurua ere, eta jaitسي egin da zifra hori papera eta kartoiaren kasuan, alde batetik, eta beiraren arloan, bestetik. 2023an 4.847 tona materia organiko bil-





Jokin Alberdi eta Igor Aldalur Mankomunitateko teknikariak, gaiako bilketaren inguruan eskainitako prentsaurrean.

du dira, aurreko urtean baino 69 tona gehiago. Papera eta kartoia 2022an 4.012 tona izatetik, 3.775 tona izatera pasa da. Ontzi arinetan, urte batetik bestera, 1.381 tona izatetik 1.389 tona izatera pasa da, zortzi tonako aldega besterik ez. Beiraren kasuan, kopuru hori 2.357 tonatik 2.274 tonakoa izatera pasatu da, hor bai eman da jaitsiera. Eta birziklatu ezin diren hondakinen kopurua, errefusa, 168 tona handitu da 2023an.

420 kilo biztanle bakoitzeko

Plastiko gogorra, txatarra, gurpilak eta aparailu elektrikoek gaiakoko bilketa-kopurua ere jaitsi egin da. Bestalde, 2022arekin alderatuta, igo egin dira hondakin organikoek gaiakoko bilketa (100 tona gehiago), kafe kapsulena (ia bikoitza jaso da aurtun, 7.000 kg) eta hondakin arriskutsuen bilketa (%15 igo da).

Etxeko eremura pasatuta, 2023an biztanle bakoitzeko 420 kg sortu ziren guztira eta, garran-

tzitsuen dena, horietatik 226 kg gaika bildu ziren. Eta gaikako bilketa horri erreparatu, udalerriz udalerriz, honela sailkatuko ditugu gure bailarakoak, "zintzoenetik gaiztoenetaraino" izan duten jarrerari erreparatu: Mallabia (%66,49) izan da gehien birziklatu duena, eta atzetik datoz Mutriku (62,12), Deba (58,54), Eibar (55,30), Elgoibar (51,92), Soraluze (49,13), Mendaro (48,05) eta Ermua (%45,86). Ikusten denez, Mutriku, Mallabiak, Deba eta Eibarrek Mankomunitatearen batz bestekoa gaintu dute. Baina, dena dela, azken bi urteetan gaikako bilketak behera egin du herriarren artean; horren aurrean, Mankomunitateak Gaikako Bilketa Hobetzeko Plana jarri du abian.

Gaikako Bilketa Hobetzeko Plana

Plan hori Mankomunitateak martxan jarri badu ere, aurretik, 2023an zehar, hainbat ekintza egin ditu eskualdean gaikako bilketa

>>> 2023an biztanle bakoitzak sortutako 420 kilotik, erdia baino gehiago (226) gaika bildu ziren





Buzoietan egun hauetan jasotako informazioan, "plastiko guztiak ez doaz horira" mezua azpimarratu nahi izan dute. Irudiko gauzak kontenedore grisean edo, bestela, garbigunean dute bere tokiak.

sustatzeko asmoz: papera eta kartoiaren eta ontzi arinen edukiontzi aldaketak, hondakin berrien gaikako bilketa martxan jartzea (film industrialak Eibarko garbigunean eta kafe kapsulen 45 edukiontzi berri kalean), elikagaien xahuketa ekiditeko proiektuak, sentsibilizazio kanpainak eta hitzaldiak ikastetxeetan...

>>> Desegoki botatako poltsen kopurua igo dela eta, organikoaren edukiontziak berriro ixteko asmoa dago

Aurrekoarekin batera, 2024an Debabarrena eskualdeak hondakin inguruan duen erronka nagusia gaikako bilketaren tasa hobetzea izango da, hau da, hondakinak modu egokian sailkatzea dagozkien edukiontzietan. Horretarako, Mankomunitateak neurri irmoak hartuko ditu, hala nola, organikoaren edukiontziak itxiko ditu berriz, arraindegietako sandach hondakin bilketa berezia jarriko du martxan, bilketa bereziak egingo dira komertzio eta ostalaritzan (ordutegietara moldatuz) eta, aurrekoez gain, sortzen dituzten hondakin araberako ordainketa sistema ezartzeko analisia eta inplementazioa egingo da industriaguneetan. Azkenik, berrerabilpena bultzatzeko neurriak ere hartuko ditu Mankomunitateak urte berrian.

210 euro herritar bakoitzeko

Bestalde, Debabarrena eskualdeko Mankomunitateak 2024rako

17.181.445,21 euroko aurrekontua onartu du, iaz baino 1.246.958,45 euro gehiago (%7,82). Urte berri-rako aurrekontuaren helburua da "gaur egun ematen dituen zerbitzuen kalitateari eustea, hobekuntzak txertatuz eta gastuei eusten saiatuz, Mankomunitatea osatzen duten udalei kuotak gehiegi ez handitzeko; hori guztia, inflazioaren ondorioz etengabe kostuak nabarmen igotzen ari diren testuinguruan, erregaiaren gas-tua eta ibilgailuen konponketa- eta mantentze-lanetako gastuen igoera nabarmenduz eta, horrekin batera, lege eskakizun berriengatik aparteko gastuak, hala nola, errausketagatik ordaindu beharreko zerga".

Horrek guztiak Mankomunitateak 2024an 209,96 euro inbertitzea dakar herritar bakoitzeko hondakin bilketan, birziklatzean eta kale garbiketean, aipatutako hiru esparru horietan, guztira 2023an baino %9,68 gehiago.

IGOR ALDALUR • Debarrenako Ingurumen teknikaria

“Organikoa posta konpostagarrietan bota behar da beti”



Orain arteko esperientziatik abiatuta, bilketako zein arlotan ematen dira arazo gehien? Plastikoe-tan agian? Arlo horretan, badago nahasketarik sortu dezakeen elementurik?

Gure eskualdean bi frakziotan daukagu bereziki hobetzeko premia: organikoan eta ontzi arinetan. Organikoaren kasuan, 2020tik gaika biltzen dugun organiko kopurua murrizten doa eta horrek kezka sortzen digu. Organikoa da hondakinen artean pisu gehien hartzen duen atala; horregatik da hain garrantzitsua berau bereiztea, datuak hobetu eta 2030erako helburuak bete nahi baditugu. Organikoa ongi bereizteak Epeleko konpost plantan konposta egiteko aukera ematen digu.

Ontzi arinein dagokionez, 19kg/biztanleko/urtean jasotzen ari gara, eta kopuru hori estatuko batz bestekotik behera dago. Hori dela eta, etxez etxe buzoneatu dugun eskuorrian adierazten da edukiontzi horretara zer bota daitekeen eta zer ez. Arazo handiena da herritarrek edukiontzi horia plastikoen edukiontzia bezala identifikatzen dutela eta, berez, ontzi arinen edukiontzia dela. Bertan tetra brick-ak, aluminiozko latak edo egurrezko kaxa txikiak bota daitezke, baina ez fregonaren makila, plastikozko jostailu edo plastikozko kutxa bat.

Zein arlotan betetzen dira “kaskarrago” aginduak? Organikoan aka-

so? Horrek zenbateraino zailtzen du sailkapena? Poltsa konpostagarriak ondo erabiltzen dira?

Organikoaren edukiontzien kasuan, arazo larriak izaten ari gara bertan bota behar ez liratekeen hondakinak agertzen zaizkigulako. Covid 19aren arrazoia medio, 2020ko martxoan edukiontzi marroia eta grisa zabaltzea erabaki zenetik, edukiontzi marroian gaizki botatako hondakin kopurua asko igo da; gaur egun desegoki botatako milaka poltsa ari gara ateratzen edukiontzietatik. Lan hori burutuko ez bagenu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak gure edukiontzi marroiak errefusa bezala kontsideratzeko arriskua dago, horrek duen ingurumenarekiko kalteari ekonomikoa ere gehituz. Arazo horri irtenbidea emateko, edukiontzi marroia ixteko prozedura abian dago: laster emango zaie herritarrei epeen berri.

Eibarri dagokionez, badute berezitasunik gure herriko emaitzek? Pandemiak eraginik izan al du gure jardueran? Organikoaren edukiontziak berriro ixtea komeni da?

Eibarri dagokionez, gaikako bilketa datuak eskualdekoak baino zertxobait hobeak dira. Eskualde mailan, Mutriku eta Deba dira gehien banatzen dituzten herriak, eta ondoren Eibar izango litzateke. Hala ere, azken urteotan beherakada nabari da eta horrek asko kezkatzen gaitu. Edukiontzi hori

eta urdin berriak jarri dira, garbiguneetan frakzio berriak jasotzen ari gara, sentsibilizazio kanpainak burutzen ditugu... baina emaitzek ez dute hoberantz egiten. Neurri ausartagoak hartzea pentsatzen ari gara.

Hainbeste erraztasun emanda, orokorrean hartuta, zergatik ez dugu hobeto erantzuten? Ezjakintasuna, nagikeria...

Gure ustez, herritarrek hondakinak edukiontzi puntuetara eramatea lortu dugu, baina azken bi pausoak ematen lortzea falta zaigu: poltsa edukiontzi barrura sartzea (kanpoan lagaz gero ez dira gaika biltzen) eta, azkena eta garrantzitsuena, hondakin bakoitza dagokion edukiontzian sartzea. Azken urteetan egindako azterketen emaitzen arabera, hondakin bakoitza bere edukiontzira bota izan bagenu, 800.000 eurotik gora aurreztuko genuke Eibarren bakarrik. Irudikatu genezake diru horrekin herri mailan zein hobekuntza egin ahalko liratekeen, bai zabor bilketan, kale garbiketan edo beste edozein esparrutan.

Zer da kaltegarriagoa: organikoan posta konpostagarria ez erabiltzea edo organikoa errefusara botatzea?

Gogoratu nahi duguna da organikoa poltsa konpostagarrietan bota behar dela edukiontzietara; eta, mesedez, poltsa konpostagarriak ez erabiltzeko beste erabilera batzuetarako.

Euskarak kolorez jantziko ditu Eibarko denda eta tabernak

Urteak daramatza ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarko Udalaren babesarekin eta elkarkidetzan, arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzen, Euskeraz Primeran! programaren bitartez. Urrian ...eta kitto!-ko teknikari bat hasi zen programari atxikituta dauden ia 500 establezimenduak bisitatzen euskararen presentzia, gaitasuna eta irizpideei buruzko datuak jasotzeko; izan ere, lan hori bi urtetik behin burutzen da.

2024ra begira aldaketa nabarmenak datoz programa horretan; izan ere, mailaketa bat egin da Euskeraz Primeran! markan. Orain arteko pegatina bereizgarri oinarritzakoaz gain (beltza), zilarrezko eta urrezko markak ere badaude, establezimenduaren euskararen erabileraren arabera. Horrez gain, hala nahi izan duten establezimenduek euskarari lotutako erronka txiki bat hartzeko aukera izan dute, hala nola sare sozialetan euskara erabiltzea, erakusleiho-

2024ra begira aldaketa nabarmenak iragarrita daude

ko oharrak edo prezioak euskaraz izatea... eta betetze mailaren arabera 2024. urte amaieran aitortza publikoa egingo zaie. “Euskaraz barra-barra” Euskal Herri mailako marka ere zabaldu da Eiba-

rren aski ezaguna den Euskeraz Primeran! markaren ildo beretik. Eskara erabiltzeko gaitasuna identifikatzeko eta aitortzeko marka bateratua da, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak sustatutakoa. Marka horren helburua bezero euskaldunei euskaraz egiteko aukera dutela adieraztea da, eta Eibarrek bat egin du Euskal Herri osoan zabaltzen ari den marka horrekin, eta bateragarria izango da Euskeraz Primeran!-ekin ere.



Gauregun 60 establezimenduk eskuratu dute urrezko Euskeraz Primeran! bereizgarria, ia 90ek zilarrezkoa eta gainontzekoak oinarritzko marka beltzarekin jarraituko dute. Barra-barrarekin ere bat egin dutenak 100 establezimendu inguru izan dira.

Hauexek dira aipatutako markak eskuratzeko irizpideak:



Zilarrezko markako irizpideak %75era heltzen dira. Jendaurrean lan egiten duten langileen %75 euskara ulertzeko gai izan behar dira eta %50 baita hitz egiteko ere.



Lehen hitza eta kanpoko elementu finkoen %50 elebidun izatea (ordutegia, zabalik/itxita...)



Oinarritzko markako irizpideez gain, paisaia linguistikoa (erakusleiho, establezimendu barruko oharra...) eta sare sozialetan %50 gutxienez euskaraz izatea. Jendaurreko harremanetan ulertzeko gai den eta elkarriketa elebidunak izateko prest dagoen langile bat egotea gutxienez.



Barra-barra eskuratzeko gutxienezko baldintza da establezimenduan bezero euskaldunaren mezuak ulertzeko gai den langileren bat egotea momentu oro. Alegia, bezero hori hizkuntza aldatzera ez behartzea. Establezimendua herritarrentzat irekita dagoen bitartean, beti ziurtatu behar da gutxienez langileren bat oingo dela herritar euskalduna artatzeko.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ATARIA



Zerbait ordur argindarra kenduko dutela adierazteko abisua jarri du enpresa hornitzaileak pegoran

Oharra ele bietan dago, baina euskarazko testuan akats ugari daude... Zer egingo dut?

Bidali ASTINDU kanalerat!
Oso erraza da!



Deitu: 943 708426
Idatzi: eibarrenakeba@gmail.com
Bete webguneko formularioa
Idatzi Whatsapp: 688 69 85 66

www.aldatze.eus

aldatze



ALDATZE DENOK GARA

MATRIKULA - IZEN EMATEA -
otsailaren 7tik 23ra



Mintzasaioak Eibarko Udal Euskaltegian

Zure ahozko jarduna zuzendu eta hobetzeko ikastaroa

Otsailaren 19tik martxoaren 21era

Modulua:

- Astelehen eta asteazkenetan 14:30 - 16:00, edo
- Astearte eta ostegunetan 17:00 - 18:30
- Prezioa: 40 € (20 € Eibarren erroldatutakoentzat)

- **Matrikulaldia: Otsailaren 7tik 16ra.**



Eibarko Udal Euskaltegia - Bista Eder, 10

943700912 688 698 566


euskaltegia@eibar.eus

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/udal-eskolak/udal-euskaltegia>



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

enkarguak etxera

“Marka-irudi berriarekin, Klub Deportiboak duen handitasun guztia ikusiko dugu orain”

IRUNE JAIO • Diseinatzaile grafikoa



Logotipoak, serigrafiak, aldizkarien maketazioa, ilustrazioak... mota askotako sorkuntzak irteten dira Iruene Jaio eibartarraren eskuetatik. Arlo grafikoan artisautza lana egiten abila da Jaio eta, era berean, maisuki aritzen da arlo digitalean egindako sorkuntzetan. Egunotan, gainera, argia ikusi dute bere sorkuntzetako batzuk.

Elkarrizketaren
BIDEOA



Joan den astean bete zuen mendeurrena Eibarko Klub Deportiboak. Hilabete batzuk lehenago, logotipo berria aurkeztu zuten eta orain bere irudi berriak. Iruene Jaiok egin du lanketa hori. Bestalde, urtarrilean Pikara aldizkariak urtekaria aurkeztu zuen Andretxean eta bertan izan zen diseinatzaile eibartarra, berak egin baitu haren maketazioa.

Nolako lanketa egin duzu Klub Deportiboaren irudierekin bere mendeurrena dela eta?

Aurten mendeurrena betetzen dutenez, Deporrek ikusten zuten materiala argitaratu behar zutelako, merchandisinga, eta abar. Deporra aterki bat da eta batzorde asko daude barruan, eta arazoa zen ez zela ikusten Deporrek duen egitura guztia edo, behintzat, kaletik ez zela hori sumatzen. Beraz, hori guztia bateratzen eta material amankomun bat sortzen saiatu gara mendeurrenari begira. Momentu batean arazo batekin egin genuen topo: Deporren logotipo zaharrak zailtasunak ematen zituen horren barruan batzordeak irudikatzeke orduan. Logotipoak oso ondo bete du bere

funtzioa, oso ezaguterraza da eta gure memorian oso txertatuta dago, baina gauza berriak egiteko orduan mugak zituen (eraikuntza aldetik, erremate asko zituena...). Orduan, ukitu behar zen lehen gauza logotipoa zela planteatu genuenean, Deporreko jende batek ez zuen espero, lotura berezia zutelako logotipoarekin, baina azkenean euren artean berba egin eta logotipoari berrikuntza eman behar zitzaiola onartu zuten.

Nola planteatu zenuten berrikuntza hori?

Lana Miren Bengoarekin egin dut eta aukera ezberdinak proposatu genituen. Batetik, apurketa totala. Guretzat aukera errazena zen, zerotik hasi ahal ginelako, baina aukera hori baztertu egin zuten, eta Deporren logotipo zaharrari beste bizitza bat emateko ardura geratu zitzaigun. Orduan, sintetizazioa jotzea erabaki genuen, logotipoa sinplifikatzera, modekin eta denborekin harremana duten aldaketa guztiak txertatzea askoz errazagoa izango zelakoan. Beraz, logotipoa biluztu genuen, moduren batean, eta Deporren logotipo zaharrarekin lotura duen irudi aktualagoa sortu dugu. **Logotipo berria sortzeaz gain, bestelako zein sorkuntza egin dituzue Deporrentzat?**



Urko mendiaren ilustrazioa egin du Iruñe Jaiok Klub Deportiboaren mendeurrena dela eta. EKHI BELAR

Logotipo horretatik hasita, estilo liburua landu dugu. Bertan, logotipoaren aplikazioa nola egin, kolore paleta, tipografiak, kartelgintzarako plantillak, merchandisinga... Logotipotik lau elementu geometriko atera genituen (gurutzea, borobila, borobil erdia eta marra), eta hortik abiatu gara Deporrek batzordeen irudi ekosistema sortzeko. Horrek askatasuna eman digu. Batzordeen ekintzei begira nahiko modu literalean diseinatutako irudiak dira, baina modu berdintsuan dago dena eraikita, eta hartzaileak osotasun edo uniformitate bat sumatzen du. Deporri botere hori guztia proiektatzea falta zitzaion, irudi aldetik batzorde bakoitza autonomoa zela zirudielako (ahal izan duten moduan egin dute, ariketa hori ez baitute lehenago egin), eta modu horretan lortu dugu. Deporren handitasun guztia ikusiko dugu orain.

Mendeurrena betetzen duen kluba izanik, herrikoa gainera, nolako ardura sentitu duzue?

Hasieran izutu egin ginen, duen tamaina ere ez genuelako kalkulatu. Proposamena iritsi zitzaigunean bertigo barik egin genion aurre, baina pertsona asko daude ordezkatuta Deporren barruan, askok ibilbide

“Uste dut, hasierako shock-az haratago, irudi berriak oso harrera ona izan duela elkartearen barruan. Beraz, oso pozik nago”

luzea egin dute Deporren edota batzordeen markei lotuta, lotura handia dute horiekiko, eta iritzi, adin eta profil ezberdinetako jende asko dago. Beraz, hori guztia bateratzea lana izan da, baita ardura ere, eta pertsona batzuren lana gakoa izan da elkarte barrutik dena bideratzeko. Horrek lana asko erraztu digu. Uste dut, hasierako shock-az haratago, irudi berriak oso harrera ona izan duela klubaren barruan. Beraz, oso pozik nago.

Urkok zeresana eman zuen Deporren mendeurrenaren ospakizunetan eta, hain zuzen ere, Urkoren eta Arrateren ilustrazio bereziak egin dituzu.



Deporren mendeurrenaren inguruan oroigarriak emateko bi irudi sortzea pentsatu genuen eta Urkoren irudia egitea hasieratik irten zen. Markaren beste tentakulu bat izan da ilustrazio horiek sortzea. Joan den asteko Urkoko ekintza oso potentea iruditu zitzaidan eta oso harremanduta dago ilustrazioarekin.

Hemendik urte amaierara arte sorkuntza berri gehiago ikusiko ditugu Deporren mendeurrenaren inguruan?

Orain Deporreko batzordeen jantziak argitaratuko ditugu. Horretarako, batzorde bakoitzarekin egin dugu lanketa, euren behar teknikoetara egokituz. Gero, nik merchandisingarekin egin dut gehiago lan eta, zentzu horretan, kalerako arropa aterako dugu.

Diseinatzaile moduan, orokorrean, zurea den estilo bati jarraitzen diozu edo bezeroen beharretara moldatzen zara erabat?

Estilo propioa dudala uste dut. Ez da horretaz ni jabetu naizelako, baizik eta kanpotik esan didatelako. “Hau argi dago zuk egin duzula” eta horrelakoak esan didate, gehienbat sortzerako orduan libre uzten didatenean. Gustatuko litzaidakeena baino gehiago errekonozitzen dira nire lanak. Konfort-zona batean sartzen gara funtzionatzen duten gauzak egiten eta hortik irtetea kostatu egiten da. Mugimenduan egon behar garela uste dut. Bestetik, aurretik nuen beste proiektu batean markairudia asko landu genuen eta marka-irudia bezeroari eta batez ere hartzaileari egokitu behar zaio, hirugarren hartzaile horri. Gauzak estetikoki eta funtzionalki ondo daudela uste duzun moduan egiten dituzu, baina hor bai izaten naiz hotzagoa nire estilo propioa ipintzeko orduan.

Dena dela, moda eta joera berriak iristen dira etengabe, eta horiek ere eragingo dute, ezta?

Bai. Hasierako lanak gaur egungoekin alderatuz gero, ikusten da bilakaera bat egon dela. Dena dela, *collagea* ez dut nire sorkuntzetatik askatzen. Eroso sentitzen naiz teknika horrekin eta berau lantzen jarraitzen dut. Gustatzen zait argazkiekin lan egitea.

Adimen Artifizialaren (AA) boom-a bizi dugu azken urteotan. Nola eragiten du edo eragin dezake horrek zuen lanbidean?

Oraindik ez dut AA-ren eragina igarri nire lanbidean, baina agian ez naiz oso kontziente zer sortzen den AA-

“Konfort-zona batean sartzen gara funtzionatzen duten gauzak egiten eta hortik irtetea kostatu egiten da. Mugimenduan egon behar garela uste dut”

“Pentsatzen dut azkenean pertsonak egingo dutela diferentzia, bestela emaitza oso antzekoak lortuko direlako Adimen Artifizialeko tresnak erabilia”

ren bitartez eta zer ez. Oraindik pertsonak ikusten ditut gure lanbidearen ardatzean. Agian batzuek txertatu dituzte AA-eko erremintak euren jardunean. Ostera, ni nahiko analogikoa naiz, oso erromantikoa zentzu horretan, eta teknologiak atzera egiten dit. Agian nik lau ordu behar ditut gauza bat egiteko eta beste batek ordu erdi (barreak), baina ez naiz horretaz jabetzen. Pentsatzen dut azkenean pertsonak egingo dutela diferentzia, bestela emaitza oso antzekoak lortuko direlako horrelako tresnak erabilia. Hau da, pertsonak emango diogu balio erantsia. Pertsonalki, ez dakit niri nola eragingo didan profesionalki. Egia ere bada gero eta gehiago nabilela proiektu militanteetan parte hartzen eta nire norabidea horrantz nahi dudala bideratu. Horrelako proiektuetan pentsatzen dut gauza horiek zaindu egingo direla. Hau da, ez dela produktibitatea edo emaitza azkar bat begiratu, baizik eta lan-taldea eta ekarpen pertsonalak, adibidez.

Adibidez, Pikara aldizkariarekin diharduzu lanean eta Andretxean aurkeztu zen urtekaria maketatu duzu, besteak beste. Nolako lana egiten ari zara eurekin?

Orain dela urtebete inguru, maketatzaile bila zebiltzala-eta, deialdia egin zuten, eta neure burua aurkeztu nuen. Aldizkariaren harpidea naiz, oso lerrokatuta nago euren ideiekin eta fantasia moduan irudikatu dut beti eurekin lan egitea. Oso proiektu potentea da, bai feminismotik bai kazetaritza ona egitetik. Aukeratu egin ninduten eta diseinatzaile moduan nabil eurekin lanean.



IÑAKI ELORTZA

ASHWAGANDA

Osasuna eta ongizatea hobetzeko aukeren etengabeko bilaketan Ashwagandha, medikuntza ayurvedikoan sustraiak dituen belar zaharra, oso ezaguna egin da azkenaldian. "Ginseng indiarra" ere deitua, landare honek osasunean izan ditzakeen eragin positiboak esker jaso du arreta. Hala ere, belar hau hartu aurretik funtsezkoa da bere onurak eta arriskuak ezagutzea.

Belar zahar batetik haratago:

Ashwagandha moldagarri natural gisa katalogatua izan da, estresarekiko erresistentzian eta gorputzak tentsio fisiko eta mentaletara egokitzeko duen gaitasunaren aliatua. Ikerketek iradokitzen dute estresa eta antsietatea murrizteko egokia dela kortisol-mailak (estresaren hormona) erregulatzean.

Gainera, Ashwagandha hanturaren aurkako propietateengatik ere nabarmendu da, hantura kronikoarekin lotutako egoeretan onura azalduz. Beste ikerketa batzuek sistema immunologikoa modulatzeko duen gaitasuna ere azaldu dute, gorputzaren defentsa naturalei laguntzen baitie.

Zuhurtzia, onurak eta arriskuak:

Hala ere, edozein gehigarri bezala, Ashwagandha hartu aurretik bere albo-kalteak ere ezagutu behar dira, eta beti komeni da osasun-profesional bati kontsulta egitea, batez ere nerbio-sistema zentralari edo maila hormonalei eragiten dieten sendagaiak hartzen ari bazara.

Orokorrean ondo onartua bada ere, batzuei ondoez gastrointestinala edo presio arterialean aldaketak ere eragin diezaieke. Horrela, beti komeni da dosi baxuekin hastea eta gerta daitezkeen kontrako erreakzioei adi egotea.

Haurdun dauden edo edoskitzaroan dauden emakumeek ez lukete Ashwagandha hartu behar, talde horietan duen segurtasuna ez baita erabat ezarri.

Eta, beti bezala, Ashwagandharen gehigarrien kalitatea bermatzeko iturri fidagarrietako produktuak aukeratzea garrantzitsua da, produktuaren garbitasuna eta eraginkortasuna bermatzeko.

Laburbilduz, Ashwagandhak hainbat onura ditu, baina kontu izan behar da, batez ere sendagaiak hartzen badira, haurdunaldian eta edoskitzaroan. Eta beti ere osasun-profesional baten orientazioa jaso produktua zuretzat egokia eta segurua dela ziurtatzeko.

“Haurdun dauden edo edoskitzaroan dauden emakumeek ez lukete Ashwagandha hartu behar, talde horietan duen segurtasuna ez baita erabat ezarri”

1300. alea duzu eskuan

1988ko abenduan jaio zen ...eta kitto! hilabetekaria, egunkari formatuarekin. 1982an, Mikel Larrañaga alkate zela, sortutako bandotik hartu zuen izena. Argitaratzailea, orduko hartan, Udaleko Euskara Zerbitzua zen. Hasieran domeketa banatzen zen kioskoetan, egunkariarekin batera. 21. aletik aurrera buzoietan banatzen hasi zen. 31 ale egun zituen hilabetekari moduan eta 5.000 aleko tirada zuen.

1992ko maiatzaren 28an kaleratu zen ...eta kitto! hamabostekariaren lehen alea (32. alea zena). Urte horretan sortu zen ...eta kitto! Euskara Elkarte eta berak hartu zuen bere gain aldizkaria argitaratzeko ardura, eta horrela jarraitzen du gaur egun ere. A-4 formatura pasa zen eta tirada 6.000 alera igo. Hamabostekari moduan 39 ale kaleratu zituen ...eta kitto!-k.

1993ko ekainaren 6an ikusi zuen argia hauteskundeetako lehen ale bereziak; orduz geroztik hauteskunde guztien segimendua egin dugu. 1994ko maiatzaren 13an kaleratu zen ...eta kitto! astekariaren

lehen alea (71. alea zena). A-4 formatoarekin jarraitu bazuen ere, azala koloretan kaleratu zen lehen aldiz. 1995eko otsailan, ...eta kitto!-k 100 ale argitaratu zituela eta, hainbat ospakizun egin ziren. Eta urte bereko azken egunean, abenduaren 31n, Eibarko Kirol Sariatako lehenengo edizioa egin zen.

1996ko ekainean, astekariak urte bi betetzen zituela eta, "Milla batteko herri krosa" egin zen, klubun arteko olinpiadak aprobetxatuz. Eta urte bereko urrian Txikitto! umeentzako hilabetekariaren lehen alea kaleratu zen. 2004ko ekainean Sanjuanei buruzko Bixamona argazki-albuma kaleratu zen lehen aldiz.

2008ko abenduaren 12an, 660 zenbakiko alearekin, astekaria koloretan kaleratzen hasi zen. 2009ko otsailaren 2an Ukan Berrikuntza Saria eman zion Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak ...eta kitto!-ri; horrela saritu zuten hogei urtetan aldizkariak izandako aldaketak eta uneoro etorkizunari begira egotea,



1000. zenbakira iritsi ginen 2017ko urtarrilean, orain dela zazpi urte.

sortu berrian Rikardo Arregi Sariaren lehenengo edizioa bereganatu zuen bezala.

Eta 2022ko martxoaren 25ean astekariak formatua aldatu zuen, tamaina txikiago batera pasatuz. Informazioa, dena dela, inoiz baino zabalagoa eskaintzen du gaur egun ...eta kitto!-k, sare sozialek eskaintzen duten eguneroko jarraikortasunari esker. Publikazioak urtetik urtera gora egin du eta gaur egun, gutxienez, 36/40 orrialdeko aleak kaleratzen ditu ...eta kitto!-k, eta hortik gorako orri kopuruekin, edozein gehigarri dela eta. Tiradak ere gora egin du etengabe eta orain 7.800 aldizkari inprimatzen dira astero.

Aztiker enpresak egindako azken inkestaren arabera 14.000 lagunek irakurtzen dute astero aldizkaria. 1.300 zenbakira heldu garen honetan, eskerrak ematea baino ez zaitzazu geratzen eskuartean duzuen ale bakoitzaren jarraitzaileoi. Eta baita zuen iragarkiak jartzeko gure aldizkaria aukeratzen duzuen guztioi ere. Zuek gabe ezinezkoa litzatekeelako proiektuari eustea. 35. urteurrenaren bidean goaz, bada zeozer!



Otsailaren 2an 15 urte bete dira ...eta kitto!-k Ukan Saria jaso zuela.

Hilaren 17ko sagardotegiko txangoan Arastortz gaineko buzoia bisitatuko dute Deporrek mendizaleek

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekoen hurrengo ibilbidea sagardotegiko txangoa da: Ataunetik Zaldibiarainoko ibilbidea izango da, 14 kilometrokoa, bidean 827 metroko Arastortzera igotzeko. Irteera hori Deporrek Buzoien multzoetako bigarrena da eta Roberto Larreategik eta Amaia Aranak 1978ko otsailaren 26an jarritako buzoia ikusteko aukera izango dute. "Ondo konterbatuta dagoen buzoia da, bere piramide moduko formarekin". Elgoibarko Morkaiko-ekin elkarlanean antolatutako irteeraren prezioa 55 eurokoa da bazkideen kasuan, eta 65ekoa bazkide

ez direnentzat, beti ere autobusa eta Altagako Olagi sagardotegiko bazkaria barne daudela; lehenbailehen komeni da izena ematea, plaza mugatuak izango direlako. 943201904 zenbakira deitu daiteke.

Bestalde, aurreko zapatuan Mendaur tontor "klasikora" egindako txangoan 47 izan ziren parte hartu zuten mendizaleak. Sei kilometrotan aldapei aurre egin ondoren heldu ziren gainera eta, handik, bide osoa aldapa behera egin zuten, 17 kilometro osatu arte. Batzuk Mendieder tontorreraino igo ziren, primeran ibiltzeko aukera eskaini zien egun eguzkitsua aprobetxatuz.



Goian, 1978an jarritako buzoia. Behean, gaur egun duen irudia



Kalamuako bost judoka Gipuzkoako txapelketaren lehenengo fasean

Urrietan aurreko zapatuan jokatu-tako lehen fase horretan Kalamua klubeko hiru mutil eta bi neska izan ziren parte hartzen. Andoni Urrak bi borroka irabazi zituen eta bat galdu 46 kilora artekoen mailan, bi irabazi zituen eta beste bi galdu Aner Gonzalezek 38 kilora artekoan, eta bat irabazi eta bi galtzea egokitu zitzaion Julen Martini 57

kilora artekoen mailan. Nesken arloan, bestalde, Kalamuako bi ordezkariak 57 kilora arteko mailan lehiatu zuten: June Valladares bat irabazi eta bi galdu zituen, eta Sara Azpiatzuk egindako bi borroka galdu zituen. Bigarren faseari begira prestatuko dira hemendik aurrera, bertako emaitzekin finalera pasatzeko aukera izateko.

SD Eibarrek Real Zaragoza urteroko aspirantea hartuko du etzi

Denboraldi asko -larregi ere bai bera bezalako talde batentzat- daramatza Real Zaragozak 2. Mailan; baina, aurtun bikain hasi bazen ere, beste behin hainbat puntura ditu igoerako aukera ematen dituzten postuak. SD Eibar taldeak, bestal-

de, gero eta sendotasun handiagoa ari da erakusten azken aldian, eta bigarren postuari eusten dio azken partiduan Ferrolen bana berdindu eta gero. Domeka arratsaldean, 18:30ean hasita, Ipuruan jokatu den partiduan bigarren postu hori

jokoan izango dute Joseba Etxeberriaren mutilek. Aragoiarrek hobera egin dute azken aldian eta, dagoneko, zortzi partidua daramatzate galdu barik. Lehen itzulian, eibartarrek 2-3 irabazi zuten Romaredan, 2-0 galtzen joan eta gero.



Sandra Rochak garaipen bidetik jarraitzen du

Aurreko zapatuan Galdakaoko Urreta kiroldegian jokatuak Kick boxing eta k1 jaialdian izandako profesional eta amateur mailetakoko borroken artean, gure herriko Inda Team taldeko Sandra Rochak Erreterian bizi den Yess Castro mexikarrari irabazi zion hiru asaltora jokatuak borrokan. Eibartarra puntuetara nagusitu zen, “elkarri emandako kolpeak berdintasuna erakutsi zuen borroka garbian”. Rochak amateur mailan orain arte egindako borroka irabazi ditu.

Rene Peraltaren hiru golak ez ziren nahikoak izan Urbatek irabazteko

Urbat-Urkotronik klubeko talde nagusiak 12-11 galdu zuen 2. Nazional Mailako Ligako partiduan. Markagailuak erakusten zuen bezala, neurketa oso parekatua izan zen, baina eibartarre ez zuten jakin bertan izandako une garrantzitsuenak aprobetxatzen. Armaginen taldean Rene Peralta estatubatuarren debuta azpimarratu behar da, hiru gol lortzeaz gain, hainbat asistentzia ere banatu zituelako. Peralta Kaliforniako Pacific Tigers taldeetik dator, hango Pazifikoko Unibertsitate Ligan jokatzetik.

Zapatuan, denboraldi honetan Davide Cerchiren mutilen “etxea” den Donostiako Pako Yoldi igerilekuan, 20:15ean hasita, intentsitate handiko beste norgehiagoka bat



izango dute Urbatekoek, oraingoan Alcorconen aurka.

Xaniak eta Malapek aurea hartu dute

Futbol-zaletuen liga txapelketan, Xania Tabernak 6-0 irabazi zion Limpieza Ruedari eta Malape Tabernak 2-1 gainditu zuen BOJ futbol-zaletuen azken jardunaldian. Beste bi partiduetan Adahi Eraieder-ek ere erraz gainditu zuen Bar Maremen erresistentzia, 6-0 irabaziz, eta Gastro Gildak 1-0 irabazi zion Baserriri. Emaizta horien

ondoren, Xaniak eta Malapek ihes egin dute sailkapenean, 31 eta 30 punturekin hurrenez hurren; eta atzean geratu dira Garajes Garcia eta Adahi Eraieder, 21ekin, eta BOJ, 20rekin. Sailkapeneko lau azkenak Bar Marem, Gastro Gilda, Limpieza Rueda eta Baserri dira. Aratosteak direla-eta, asteburuan ez da partidurik izango.

Paula Calvo igerilaria podiumean berriro

Aurreko asteburuan Iruñako Amaia Kirol Klubeko instalazioetan jokatuak Euskal Herriko absolutu eta junior mailetakoko txapelketetan, Eibar Igerixaneko Asier Gomez (2003an jaiotakoa), Ekaitz Lago (2004koa) eta Paula Calvo (2009koa) izan ziren parte har-

tzen, hirurak ere absolutu mailako lehiaketan. Hiru etatik Paula Calvok lortu zituen emaitza aipagarriak, bizkar erako 100 metroko proba irabazteaz gain, bigarren izan zelako modalitate bereko 50 eta 200 metrokoetan. Elgoibartarrak ezin finago jarraitzen du.





Urkiko kadeteen mailako bigarren taldeak denboraldi ona egiten dihardu.

Igoeraren bila dabilzan Urkiko taldeak irabazle izan ziren azken jardunaldian

Urkiko kadete mailakoak 4-2 irabazi zion Usurbili, Martin, Iriondo, Garrido eta Nainen golekin. Eta infantil mailakoak 4-3 gainditu zuen Aizkorri, Unax, Aimar, Lasa eta Xabiren golei esker. Ez ziren horiek izan Urki klubaren taldeek azken jardunaldian eskuratutakogaraipen bakarrak: Erregionaleko Gorengo

Mailan jokatzen duen taldeak ere irabazi zuen bere neurketa eta gauza bera egin zuen kadeteetako Gorengo Mailakoak. Urkiko talde nagusia 2-0 nagusitu zitzaion Ilintxari, Maguna eta Markelen golekin; eta kadete mailakoak 3-1 menperatu zuen Zestoa, Ortégaren bi golei eta Rosek lortutako besteari esker.



Pilota Eskolako benjamin eta alebinak Eskolarteko Txapelketan geratu barik

Pilota arloko Eskolarteko Txapelketa bigarren fasean da dagoeneko, eta txanpa horretako bigarren jardunaldian gure herriko benjaminak Aretxabaletako frontoian jokatu zuten aurrekoan. Debarroko txapelketako aurtengo edizioan 34 benjamin talde daude, horietako

hiru Eibarko Pilota Eskolakoak, eta hirurak 11 onenen artean daude A multzoan. Alebinak berriz, Antzuolako pilotalekuan jokatu zuten; lau taldek osatzen dute Debarroko aurtengo alebinen edizioa, eta Eibarkoak B multzoko 3. eta 5. postuetan daude sailkatuta.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**
Levante Las Planas - EIBAR (bihar, 12:00)
- Gizonezkoen 2. Maila**
EIBAR - Real Zaragoza (etzi, 18:30)
- Emakumezkoen 3. Maila RFEF**
Logroñes - EIBAR B (bihar, 16:00)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**
VITORIA - Cultural Durango (bihar, 16:00)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
Alaves B - EIBAR C (bihar, 18:00)
- Erregionaleko Ohorezko Maila**
Amaiak Bat - EIBAR URKO (bihar, 11:30)
- Jubeniletako Ohorezko Maila**
EIBAR - Alaves (bihar, 12:00)
- Jubeniletako Liga Nazionala**
Real Sociedad B - EIBAR B (gaur, 19:45)

ARETO-FUTBOLA

- Gizonezkoen 3. Maila**
EIBARTARRAK - Irun Futsal (bihar, 12:00)

ESKUBALOA

- Emakumezkoen Zilarrezko Liga**
Basauri - MEK EIBAR (bihar, 16:30)
- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**
MEK EIBAR - Zaragoza (bihar, 18:30)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
MEK EIBAR B - Egja Baztarre (bihar, 16:30)
- Jubeniletako Gizonezkoen Euskal Liga**
Bidasoia Irun - MEK EIBAR B

ERRUGBIA

- Gizonezkoen Euskadiko Erregionala**
EIBAR - BRT Menditarrak (bihar, 12:30)

SASKIBALOA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Artes. JUANTXO - Mondragon (bihar, 14:30)
- EIBAR B - Elorri-Aldapa (bihar, 16:20)

WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Maila Nazionala**
URBAT - Alcorcon (bihar, 20:15)



Artesanos Juantxok bihar jokatuko du.



Parranda has dadila. FERNANDORETO LAZA



Koko-jantzien jaiarekin bat egiteko moduko asteburua

Zapatuan, San Blas egunean egin zuten urteroko koko-eskea eta kalejira koko-marru eta koko-dantzariak, Kezka dantza taldearen ekimenez. Beti bezala, goizean Eibarko baserrietara koko-eskean joan aurretik, lehen agerraldia Errebal Plazan egin zuten goizean goiz, merkatu plazako baserritarren aurrean. Ondoren, Aginagara joan ziren, baserririk baserri eskean ibili eta dantzan aritzeko, eta arratsaldean herriko kaleetan egin zuten kalejira.

ARGAZKIAK: FERNANDO RETOLAZA





Udalak antolatzen duen koadrilen kalejira-lehiaketak oso harrera ona izaten du, eta urtetik urtera talde gehiagok hartzen du parte. Horren eraginez, azken urteotan oso giro polita sortzen da Aratoste Zapatuan eta askok egun osorako plana egiten dute. EKHI BELAR

Atzo Eguen Zuri ospatu eta gero, gaur Kaldere-roen txanda izango da. Urtero bezala, Barixaku Erregularrean egingo dute kalejira, 20:00etan Urkizutik abiatuta, Untzagan amaitzeko. Kalejiran hainbat taldek hartuko dute parte: Kezka Dantza Taldea, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Musika Eskolako trikitilariak, Lagun Taldea, Untzagako jubilatuetxeko abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa-eskola egongo dira, besteak beste. Gaurko egunerako ospakizunak Kezka Dantza Taldeak eta ...eta kitto!-k antolatutako pregoiarekin amaituko dira.

Azken urteotako martxan, aurren ere zapatuan pilatuko dira jai-egitarauko ekitaldi nagusiak. Eguerdian photocall bat jarriko da Untzagan, 12:30etik 14:30era

Mugi Panderoa taldeak hamar urte bete dituela-eta, Aratosteetako egitarauan toki berezia beteko du. Bihar saio bikoitza egingo du taldeak

arte. Orduan hasiko da Rockalean elektrotzarangaren kalejira, erdialdean, eta horrekin batera hasiko da baita ere lehiaketarako izena eman duten koadrilen kalejira. Ustekabe fanfarreak lagunduko die ibilbide osoan zehar: Untzagatik hasita, Calbeton, Bidebarrieta, Julian Etxeberria eta Toribio Etxebarria kaleetatik igaroko da kalejira.

Arratsaldean, berriz, Errebal Plazan haurrentzako puzgarriak ipinitu dituzte, 16:30etik 19:30era, eta Untzagan Mugi Panderoa taldeak berbera girotuko du, 19:00etatik 21:30era bitartean. Gainera, 19:00etatik aurrera, Rock Brass Band taldeak girotuko ditu herriko kaleak, eta beste photocall-saio bat egongo da Untzagan, 21:00ak arte. Aratosteetako lehiaketako sariak 19:30ean banatuko ditu Udalak, Untzagan. Eta eguneko egitaraua amaitzeko, Mugi Panderoa taldeak

bigarren emanaldi bat egingo du, Untzagan, 23:00etatik 01:30era.

Playback lehiaketa domeka arratsaldean

Aratoste domekan, Usartza Txistulari Bandak kalejira berezi eta koloretsua egingo du, 11:00etatik aurrera, eta arratsaldean playback-lehiaketa egingo da Untzagan, 17:00etatik aurrera, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Betiko moduan, LH 5. eta 6. mailetako ikasleek hartu dute parte. Guztiak 22 taldek eman dute izena lehiaketan. Taldeak, asko jota, sei lagunez osatuta egongo dira eta parte-hartzaile guztiek mozorrotuta joan beharko dute. Aurkeztutako abestiak euskaraz izango dira eta talde bakoitzak ikuskizun bakarrarekin hartuko du parte. Parte-hartzaileak buru-belarri ari dira koreografiak prestatzen. Beraz, animatu eta etorri gure artista gazteak ikustera. Ondoren, 18:30ean, Arno DJ-arekin musika egingo da.

Eta, Aratosteak amaitzeko, martitzenean haurrek hartuko dituzte kaleak berriz ere: Errebalen haurrentzako jolasak egingo dira, 17:00etatik 18:30era bitartean. Eta ordu horretatik aurrera, Jainagaren trikitilari taldearekin batera, sardina txikiaren entierroa egingo da.

Eguen Zuri Argazki Lehiaketa

Bestalde, Arrate Kultur Elkarteak XXVI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa antolatu du aurten ere, "besteak beste, Aratoste edo Karnabaletako oroitzapen fisikoa gera dadin". Lehiaketara aurkezten diren argazkientzat gaia "Aratosteak" da. Beraz, gai horrekin lotutako argazkiekin har daiteke parte. Argitu dutenez, argazkiek ez dute zertan Eibarko Aratosteetakoak edo Eguen Zurikoak izan. Parte hartu nahi duten guztientzat zabalik dago lehiaketa. Lanak jasotzeko azken eguna otsailaren 25a izango da. Zuri-beltzean nahiz koloretan egindako argazkiak onartuko dituzte, hiru lan gehienez egile bakoitzeko. Epaimahaiaren esku egingo da argazkiak banaka edo multzo gisa saritzea. Irudiak JPG formatuan egon behar dira, eta fitxategi bakoitzak ezin ditu 6 Megatik gora izan. Edizio lanean askatasun osoa dago. Argazki-bidalketa eta izen-ematea era digitalean egingo dira, eguenzuri2024@gmail.com posta helbidera idatzita.

2024

2023ko irabazlea: Inulegi, Fernando Retolaza

Eguen Zuri XXVI

Argazki lehiaketa

Lanak jasotzeko azken eguna: otsailak 25
Erakusketa: martxoak 7-24 Topalekua

638 284 912 eguenzuri2024@gmail.com

Domekan Untzagan egingo den playback-lehiaketan 22 taldek hartuko dute parte, euskarazko abestien erritmora dantzan





Einer Rodriguez Ponceren argazki erakusketa Untzagan

Gaur inauguratuko dute “Entre recuerdos”, Einer Rodriguez Ponce argazkilariaren erakusketa, 19:30ean Untzaga gizarte etxean. Bertatik azaldu digutenez, “Argazkiak Zaharberritzeko Erakusketaren II. edizioa da, eta Einer Rodriguezek zaharberritutako erretratuak erakusten ditu bertan. Beraz, argazki zaharren edo urteekin hondatutako argazkien zaharberritzearen aurrekoa eta ondorengoa ikusi ahal izango ditugu”. Otsailaren 25era arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian (astelehenetik barixakura, 19:15etik 21:15era; eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara)..



Akuarela-tailerra emango du Santi Entrenak Ipuruan

Santiago Entrenaren eskutik, akuarela-tailerra egingo da otsailaren 17an, Ipuruako Merkatu Plazan. Saioa 11:00etatik 14:00etara izango da eta interesa duen edozeinek dauka parte hartzeko aukera, berdin dio zenbat urte dituen (8 urtetik beherakoak nagusi batek lagunduta joan beharko dira). Doan izango da, eta ba-koitzak bere materiala eraman beharko du.



Betiko euskal kantuen inguruko saioa Kulturalean

Arrate Kultur Elkarteak euskal kanta tradizionalen inguruko saioa antolatu du otsailaren 19rako (astelehena), 19:00etan elkartearen lokaletan. Antolatzaileen berbetan, “Kantu bat gara, kantatzen duen herria ez da inoiz hilko... Sarritan errepikatzen diren esaldiak dira, baina ez zaizue inoiz gertatu, etxean edo lagun artean, kantu bat abesten hasi eta letra osorik ez jakitea? Estribilloa bakarrik gogoratzea? Edo kantatzen ari zareten abesti horren esanahia ez jakitea? Arrate Kultur Elkartetik proposamen batekin gatoz: taldetxo bat osatzen bada, euskal kanta tradizionalen letrak eta doinuak ondo ikasteko saio batzuk antolatu nahi genituzke”. Argi laga nahi dute helburua ez dela abesbatza, otxotea edo oso ondo abesten duen talde bat osatzea, “baizik eta bazkaloste batean, txango batean, mendi punta batean, lagunekin txikiteoan gabiltzala, edo duxtaren ur azpian kantuan hasten garenean, kantu paperik gabe abestiak osorik kantatzeko gai izatea”. Asmo horrekin antolatu dute hilaren 19ko saioa, eta jendea bertara joatera animatu nahi dute.

Pagatxaren bideo-forum saioa

Berdintasun Zerbitzua-Andretxearekin elkarlanean Pagatxa Emakume Taldeak antolatzen duen Emakumeen Istorioak zikloko bideo-forum saioa



egingo da astelehenean, 18:00etatik aurrera, Andretxean. Oraingo honetan Maria Zambrano izango da protagonista, eta saioa Patricia Perex Cotok dinamizatuko du. Sarrera librea da.



Anabel Alonsorekin hasiko dira Antzerki Jardunaldiak

Eguaztenean abiatuko da XLVII. Antzerki Jardunaldietako programazioa, 19:00etan Coliseo antzokian egingo den solasaldiarekin. Hurrengo egunean taularatuko den “Celestina” antzezlanean parte hartuko duen Anabel Alonsok egingo du berba, “Resilientes” izenburuari jarraituta. Solasaldia Irene Hernando antzezle eibartarrak aurkeztuko du, eta bien arteko elkarrizketan gonbidatuaren ibilbide profesionala erreparatuko dute. Sarrera doan izango da, baina gonbidapena hartu beharko da aurretik, Coliseoko leihatilan gaur edo astelehenean, 17:30etik 19:30era, edo Internet bidez, Kutxabank zerbitzuaren bitartez. Lehen antzezlan, berriz, egunean aurkeztuko du Secuencia 3 Madrilgo konpainiak. Antonio Castro Guijosak zuzenduta, Anabel Alonsorekin batera arituko diren aktoreak Jose Saiz, Víctor Sainz, Claudia Taboada, Beatriz Grimaldos eta David Huertas dira. Lan horretarako sarrera ia guztiak salduta daude, baina gutxi batzuk erosteko aukera dago oraindik.

“Turandot” operaren emanaldia

2022ko abuztuan Veronako Arenan grabatutako “Turandot” operaz gozatzeko aukera egongo da bihar Coliseon, 19:30ean. Giacomo Pucciniren lanaren errepresentazioak 138 minutuko iraupena du eta italiaraz entzun ahal izango da, gaztelarazko azpitoluuekin. Pekinen girotutako Pucciniren azken opera Franco Zeffirelliren maitagarri-ipuinen produkzioarekin berreskuratu dute, Emi Wada Oscar garailearen jantziakin dotoretuz.



Manex Beristainek doluari buruz emango duen saiorako izen-ematea zabalik dago

Otsailaren 27an, martitzena, Manex Beristainek “Azken galdera amari” liburua aurkeztuko du ...eta kitto! Euskara Elkartean. Umeekin heriotza eta dolua landu ditu Beristainek liburuan, bere esperientzia pertsonaletik abiatuta. Asmorik onenarekin bada ere, “umea babes-teko aitzakiarekin, gauzak leundu egiten ditugu, baina umeak galdetzen jarraitzen du, jakin egin nahi duelako. Prest dago erantzuna jasotzeko. Umeak galdetzen badu, baina ez badiogu erantzunik ematen, bila jarraituko du eta nonbaiten bere pelikula egingo du zalantzei zentzua emateko”, dio Manexek. Ipuinaren aurkezpena heldu zein umeentzako da (5 urtetik gora), baina umeak heldu batez lagunduta joango dira. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta orubete inguruko iraupena izango du. Aldez aurretik izena eman behar da 943200918 telefonora deituz edo mezua bidaliz (elkartea@etakitto.eus).


Vertigo Rock jaialdiaren aurkezpen festa Zai Zoi tabernan izango da

Aratosteak ospatzeko, biharko kontzertua antolatu dute Ez Dok-Zaizoi tabernan. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Old Time Spooks taldeak joko du bertan. Horrekin batera, Bittor Sarasketa kalleko tabernan izango da Vertigo Rock musika jaialdiaren hurrengo edizioaren aurkezpena. Ermuan urtero antolatzen den ekimenaren berri emateko, otsailaren 17an (zapatua) festa egingo dute, 18:30etik aurrera, eta bertan egongo dira From Hell, Nemon eta Erramunak taldeak ere, aurkezpenaren ondotik zuzenean aritzeko.





AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	8	4		5	7	
1	6				3	5
				9	6	
	9	8	3	2		
	2	5	4	1		
	8	2				
2	1				4	9
5	9		7	6		

2	9	1	8	4	9
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	2		8	4		
7	9				6	3
					2	
	2		7	1	8	
		8	9			
4	9	5		6		
7						
5	3			1	4	
		4	9		5	

S
U
D
O
K
U

soluzioa

8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8
8	8	8	8	8	8

Otsailak 9/15

BARIXAKUA 9

UNI ENCOUNTER

16:00 Ateen irekiera.

17:00 Lan Partyko partaideen pc muntaketa, jardueren hasiera, Joko Irekia eta mahai Jokoen hasiera.

18:00 Lan Partyren inaugurazioa UNI eta Agintariekin.

18:30 Eleskyren kontzertua.

20:00 Astronomiarako sarrera: Software, Teknologia eta beste batzuk Gorka Buruagarekin.

21:00 Gaueko jardueren hasiera.

22:00 Gorka Buruaga: Astronomia praktikan - 2. Atala. Uni Eibar-Ermua.



BARIXAKU ERREGULARRA

20:00 Urkizun hasita Untzagaraino, Kaldereroen kalejira. Parte-hartzaileak: Kezka Dantza Taldea,...eta kitto!, Txolarte, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Lagun taldea, Untzagako nagusien egoitzako abesbatza, Kaleetan Kantuz eta Jainagaren trikitixa eskola. **20:30** Aratosteetako pregoia, ...eta kitto!-k eta Kezkak antolatuta. Errebal Plazia.

ZAPATUA 10

UNI ENCOUNTER

11:00/13:00 Google Cloud-ekin lanean. Análisi forentse informatikoaren lantegia. Google Cloud-ekin lanean. BitCoin-ak atzo eta gaur. BattleBots. Zure Iphonek ez du funtzionatzen. Open edo API, hizkuntza ereduaren historia. Adimen Artifiziala. **12:00** Minijokoak. **13:00** Finalen hasiera. **16:00** Kpop txapelketaren hasiera. **19:00** Kpop txapelketa amaiera. Sari-banaketa. **20:00** Ate-itxiera. Uni Eibar-Ermua.

ARATOSTE ZAPATUA

12:30 Rock kalean, Eibarko kaleetatik. **12:30** Aratosteetako koadrilen kalejira Ustekabe fanfarrearekin. Ibilbidea: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Julian Etxeberria, Toribio Etxebarria, Untzaga. **16:30/19:30** Puzgarriak. Errebal Plazia. **19:00/21:30** Umeendako berbena, Mugi Panderoa taldearekin. Untzaga. **19:30** Aratosteetako koadrilen kalejira, taberna eta kartel lehiaketen sari-banaketa. Untzaga. **19:00/21:00** Photocall-a. Untzaga. **19:00** "Brass Band" taldearen animazio musikala, Eibarko kaleetatik. **23:30/01:30** Dantzaldia, Mugi Panderoa taldearen eskutik. Untzaga.

MUSIKA

19:00 Old Time Spooks. Ez Dok Zaizoi.

OPERA

19:30 Pucciniren "Turandot" operaren proiektzioa. Coliseo.

DOMEKA 11

ARATOSTE DOMEKA

11:00 Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik. **17:00** Umeendako Play-back lehiaketa, LH 5-6 mailetakoko ikasleentzat, ...eta kitto!-k antolatuta. **18:30** Jarraian, DJ Arno. Untzaga.

ASTELEHENA 12

BIDEO-FORUMA

18:00/19:00 Emakumeen Istorioak: Maria Zambrano. Sarrera librea. Andretxea.

MARTITZENA 13

BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 "Bidaia handiak. Alde onak, txarrak, eta alternatibak". Sarrera librea. Portalea (ikastaro gela).

ARATOSTE MARTITZENA

17:00/18:30 Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. **18:30** Jarraian, sardinaren entieru txikia, Jainaga trikitilariz lagundua. Untzaga.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten. Nerea Ibarzabal Salegi-ren "Bar Gloria". Portalea.

EGUAZTENA 14

IBILALDIA

09:09 Ibilaldia, Ikasten elkartearekin: Donosti-Martutene. Bazkaria sagardotegian. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (**09:11**ean Estazioan).

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 Solasaldia: "Resilientes", Anabel Alonsorekin. Aurkezlea: Irene Hernando. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.

EGUENA 15

HITZALDIA

10:00/12:00 "Artxiboak", Yolanda Ruiz Urbon-en eskutik (Erdi Aroko Historian lizentziaduna, Zaragozako Unibertsitatean). Sarrera librea. Armeria Eskola.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "La Celestina" (Secuencia 3, Madril). 15 euro (10 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 18ra arte:

- "BARNE-BIBRAZIOAK", Iker Valleren margolanak. (Portalea).
- "TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena. (Armagintzaren Museoa).

Otsailaren 29ra arte:

- "EME, Estilo Ariketak: Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKA eibartarraren erakusketa. (Andretxea)).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **10ean:** 22:30
- **11n:** 20:00
- **12an:** 19:30

“El último soldado”
 DRAMA



2023/Erresuma Batua/100'
 Zuzendaria: Terry Loane
 Aktoreak: Pierce Brosnan, Jürge Prochnow, Claire Rafferty
Gertatutakoan oinarrituta

2 ARETOA

- **10ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **11n:** 17:00, 20:00
- **12an:** 19:30

“La reina del convento”
 KOMEDIA



2024/Espainia/84'
 Zuzendaria: Carmen Perona
 Aktoreak: Mario Vaquerizo, Antonia San Juan, Isabel Ordaz
Mojak/Umorea

ANTZOKIA

- **10ean:** 16:30, 19:30, 22:30
- **11n:** 17:00 (1. aretoa), 20:00
- **Sean:** 19:30

“Argylle”
 AKZIOA



2024/Erresuma Batua/139'
 Zuzendaria: Matthew Vaughn
 Aktoreak: Bryce Dallas Howard, Sam Rockwell, Henry Cavill
Thriller/Espioitza/Komedia

ANTZOKIA

- **10ean:** 17:00
- **11n:** 17:00

“Thabo”
 KOMEDIA



2023/Alemania/93'
 Zuzendaria: Mara Eibl
Zine familiarra/Afrika/ Ikerketa

Zorion Astigarraga Alberdi

1. URTEURRENA
 2023/02/10

Gure etxeko lora,
 Lagunen lagun,
 Beti pozik eta alai,
 Beti eramango zaitugu
 Gure bihotzean

- ETXEKOAK -

FUNEUSKADI
 Funerariak

FUNERARIA MUGICA
 Funerariak

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27
 Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
 Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
 Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **NORA**, martitzenian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE**, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta! Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Pabloren partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **MARIO**, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, gurasoen eta Unairen partez.



Zorionak, **ASIER** Agote, gaur 9 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LIBE!** Bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Disfrutatu eguna famelixan eta lagunekin. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak, **ION!** Urtetxua bete dozu-eta. Gure poztasuna zara.



Zorionak, **ARATZ**, astelehenian 4 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JON!** Atzo 8 urte egin zenduaz-en-eta. Gure futbolari!!! Aitxitxa, amama, ama, aita eta, batez be, Claudiaren partez! Musu pillo bat!



Zorionak, **NINBE!** Atzo urtetxua bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!



Gaur 41 eta 7 urte. Zorionak, osaba **JAVI** eta **IBAI**txo, famelixa guztiaren partez! Egun zoragarria izan!



Zorionak, **AMATXO**-Amama (hillaren 6xan, 85 urte) eta **AITXA**-Aitxitxa (hillaren 13an, 86 urte). Bihotzez, zuen etxeko famelixa guztiaren partez!!



Otsaila ospakizunez beteta daukagu urtero gurian. **XAREK** (3an), **TIAK** (9xan) eta **SUHAR**-ek (16xan) urtiak betetzen dittuez-eta!!! Zorionak, bihotzez, famelixa guztiaren partez!!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).
- Emakumeak 2 logelako pisua hartuko luke errentan Eibarren. Kontratu finkoarekin. 688744217. Ivon Peña.

2. MOTORRA

2.1. Salgai

- 2008ko Citroen C3 HDI 70

Audace salgai, diesela eta granate kolorekoa. 116.500 kilometro besterik ez, oso egoera onean, garajejan beti. IAT erregelan. 645930806.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Abontzan garaje itxia salgai. 626528738.

3.2. Errentan

- Garajea bilatzen dut Ipuruia zonaldean. 80 euroko aurrekontua. 628933542.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakume arduratsua eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 642177589.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642604493.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642578943.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. 613965662.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 679912841.
- Neska arduratsua eskaintzen da 13:00etik aurrera nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegoarak garbitzeko. 620757528.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo kamara bezala. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusiak zaintzen. 623731063.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 632229972.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. 644943297.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez edo ospitalean ere. 644655354.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 673538021.
- Gizonezkoa eskaintzen da karretillero bezala eta garabi edo zubi-garabiarekin lan egiteko. 602381455.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642158889.
- Gizonezkoa eskaintzen da peoi bezala, eraikuntzan lan egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. 624400117.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 656811665.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 623731063.
- Neska eibartarra eta euskalduna eskaintzen da arratsaldez lan egiteko. HH eta LHko ikasketekin. Esperientzia handia. 638083826.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Externa. 624910331.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formazio ziurtagiriarekin). Esperientzia. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. 625200924.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Orduka. 631229408.

4.2. Langile bila

- Interna behar da nagusia zaintzeko. Paperekin. 687114707.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldea. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- 105 zm-ko ohe artikulatua (triangeluarekin eta ezkerreko barrarekin) salgai. Gorpil-aulkia + motorra, eta bainugelako gorpil-aulkia. Bakoitza bere aldetik erosi daiteke. 634410873 eta 677061025.

6.2. Eman

- 2 urteko bi txakur oparitutako nituzke. Labradore arrazakoa bat, eta ehizakoa bestea. Txertoaz eguneratuta. 653733457.
- Musika klasikoko bilduma (100 CD) oparitutako nuke. 656732584.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak

ANE YESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuakoa

Arragueta 2bis B, Entrepilanta A
623 003 251 info@draanesvesga.com
WWW.DRAANESVESGA.COM



Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**

838200124
kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

GONZALEZ DE MENDIBIL
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOSIZ ETXARRASALDEZ
Urkizulu, 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023



Okulistak

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

•Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

RE.P.S. 234/13



Plaza Barria 2, 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com




**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com




PODOLOGOA

**Maidor
Lopez
Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnua. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.




943-206776

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Otsailaren 7tik 23ra



URKIZU 943 89 91 47



SAN ANDRES 943 20 79 95



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



ARRATIKO ANDRA MARI 943 20 72 35



AMAÑA 688 68 72 89

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA
Elkarrekin hazten

Guzuzeta Eskola • Lehen Hezkuntzako 5. B gela

Zatoz argazkira

AURREMATRIKULA, OTSAILAREN 7tik 23ra
www.euskadi.eus/hezkuntza

Euskadi, auzolana

ELIKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA ENDA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



EIBAR BHI 943 89 92 62
JARDIÑETA, 3 B www.eibarbhi.eus
DBH 1, 4 + Batxilergoak + ZIG



EIBAR BHI 943 89 92 21
ISASI, 37 www.eibarbhi.eus
DBH1, 2 + Gaiuzenako gela orokorra